

14. AKTA

2002ko abenduaren 23an ospatutako **GOBERNU BATZORDEA**.

LEKUA: Pasaiako Hirian eta bertako Udaletxean.
DATA: Bi mila eta biko abenduak hogeita hiru.

ETORRIAK: Joseba Xabier Portugal Arteaga j.
Rikardo del Pozo Gil de Albornoz j.
Obdu Lorenzo de Dios a.
Lehendakaria: Joan Karlos Alduntzin j.

Lehenengo deialdian bildu dira Joan Karlos Alduntzin Juanena Alkate jaunaren presidentzian goian aipatu zinegotziak, Joseba Belaustegi Cuesta Idazkari jauna bertan delarik Gobernu Batzordea ospatzeko horretarako egindako deialdiaren arabera. Ez du ezin etorria adierazi Angel Oubiña Vidal jaunak.

Lehendakaritzak konstataturik Gobernu Batzordea legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela, batzarraldia irekitzat eman du 13:00etan, ondoren Gaizerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekinez.

KONTRATAZIOA

1.- “Gudari Plaza urbanizatzeko proiektua” obraren 4. eta 5. ziuertagiriak.

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez eta Udal Aparejadoreak aurrez aldeko txostena emanik, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziuertagiria:

Zka. 4 eta 5

Obra: “Gudari plaza urbanizatzeko proiektua”.

Obra zuzendariak: Agustin Errea Oiarzabal (Arkitektoa) eta Jose M^a Irazusta (Udal Aparejadorea).

Enpresa kontratista: PROBISA TECNOLOGIA Y CONSTRUCCION, S.A.

Zenbatekoa: LAUROGEI MILA BEDERATZIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAIIKA EURO ETA HAMABI ZENTIMO (80.971,12 auro) eta EHUN ETA HAMAHIRU MILA ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA HAMAZAZPI EURO ETA HIRUROGEITA SEI ZENTIMO (113.857,66), hurrenez hurren.

D-398/02 ETA D-398/02 eta d-399/02 disposamenduen kargura.

2.- “Manuel Azurmendi kaleko 6-8an Beissier pinturen fabrika zaharra eraistea” obraren ziurtagiri bakarra.

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez, Udal Aparejadoreak aldeko txostena aurrez emanik, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka: bakarra.

Obra: “Manuel Azurmendi kaleko 6-8an Beissier pinturen fabrika zaharra eraistea”. Pasai Antxo.

Obra zuzendariak: Iñaki oermazabal Azkoitia (Udal Arkitektoa).

Enpresa kontratista: TRANSPORTES ION MIKEL, S.L.

Zenbatekoa: HIRUROGEITA ZAZPI MILA LAUREHUN ETA BERROGEITA HAMALAU EURO (67.454 euro).

Karguaren disposamendua: 12678/02 eta D-1752/02.

3.- “Manuel Azurmendi kaleko 10ean SETE pinturen fabrika zaharra eraistea” obraren ziurtagiri bakarra.

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez eta Udal Aparejadoreak txostena aurrez emanik, hurrengo ziurtagiria onartzea erabaki du:

Zka.: Bakarra.

Obra: “Manuel Azurmendi kaleko 10ean SETE pinturen fabrika zaharra eraistea” obraren ziurtagiri bakarra.” Pasai Antxo.

Obra zuzendariak: Iñaki Ormazabal Azkoitia jauna (Udal Arkitektoa).

Enpresa kontratista: GRUAS USABIAGA S.A.

Zenbatekoa: HOGEITA HAMASEI MILA BEDERATZIEHUN ETA HIRUROGEITA ZORTZI EURO ETA LAUROGEITA HAMAHIRU ZENTIMO (36.968,93 euro).

Karguaren disposamendua: D-1277/02.

4.- “Manuel Azurmendi kaleko 2an Casa Martija eraistea” obraren ziurtagiri bakarra.

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez eta Udal Aparejadoreak txostena aurrez emanik, hurrengo ziurtagiria onartzea erabaki du:

Zka.: Bakarra.

Obra: “Manuel Azurmendi kaleko 2an Casa Martija eraistea”. Pasai Antxo.

Obra zuzendariak: Iñaki Ormazabal Azkoitia jauna (Udal Arkitektoa).

Enpresa kontratista: TRANSPORTES ION MIKEL, S.L.

Zenbatekoa: HOGEITA LAU MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEI EURO (24.360 euro).

Karguaren disposamendua: D-1276/02 eta D-1752/02.

5.- “Arizabalo Jauregia Berrabiltzea, San Joan, 19” obraren 10. ziurtagiria.

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez eta Udal Aparejadoreak txostena aurrez emanik, hurrengo ziurtagiria onartzea erabaki du:

Zka. 10.

Obra: “Arizabalo Jauregia Berrabiltzea, San Joan, 19” – Pasai Donibane.

Obra Zuzendariak: Iñaki Ormazabal Azkoitia jauna (Udal Arkitektoa) eta Jose M^a Irazusta Garikano jauna (Udal Aparejadorea).

Enpresa kontratistak: TECPROPASA EUSKADI, S.A. (TEUSA), CONSTRUCCIONES J. URRACA, S.A., U.T.E. ARIZABALO.

Zenbatekoa: SEI MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMALAU EURO ETA HIRUROGEITA HAMALAU ZENTIMO (6.894,74 euro).

Karguaren disposamendua: D-1624/02.

6.- “Ipar Antxo 01 Hiri Area berriro urbanizatzea (Zona C-7)” obraren 5. ziurtagiria (azkena).

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez eta Udal Aparejadoreak txostena aurrez emanik, hurrengo ziurtagiria onartzea erabaki du:

Zka. 5. azkena.

Obra: “Ipar Antxo 01 Hiri Area berriro urbanizatzea (Zona C-7)”.

Obra zuzendariak: Jose M^a Irazusta Garikano jauna (Udal Aparejadorea), Igor Urrutia (ASMATU, S.L.) eta Joan Karlos Lapazaran (Arkitektoa).

Enpresa kontratista: URBYCOLAN, S.L.

Zenbatekoa: HAMAIKA MILA ETA HAMAHIRU EURO ETA LAUROGEITA ZORTZI ZENTIMO (11.013,88 euro).

GIZARTE ZERBITZUAK**7.- Euskal Fondoari Subentzioa.**

Ikusirik 2002ko azaroaren 28an Gizarte Zerbitzuen Zinegotzi Delegatua aurkezturiko subentzio-proposamena, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKIDU

LEHENENGO.- EUSKAL FONDOARI BEDERATZI MILA SEIEHUN ETA BERROGEITA BEDERATZI EURO ETA HIRUROGEITA HAMAIKA ZENTIMO (9.649,71 euro) Marielgo Santa Isabel Komunitatean habitazioen fondoa hobetzeko proiekturako (1. fasea).

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legezkiokkeen errekurtsioak jakitera emanaz.

Hau guztia 1767/02 Baimenduaren kargura.

8.- Udalaren menpeko Gizarte Larrialdiko Diru Laguntzak. 4/02 zka duen proposamena.

Ikusirik 2002ko abenduaren 19an Gizarte Zerbitzuen Arduradunak egin proposamena eta Udalaren menpeko diren Gizarte Larrialdiko onuradunen zerrenda, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez erabaki da ONTZAT EMATEA espedientean agertzen diren onuradunen Laguntzak 29.010,54 euroko inportez. Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1909/02 Baimenduaren kargura.

9.- Eusko Jaurlaritzaren mendeko Gizarte Larrialdiko Diru Laguntzak. 3/02 zka. proposamena.

Ikusirik 2002ko abenduaren 19an Gizarte Zerbitzuen Arduradunak aurkeztu proposamena eta Eusko Jaurlaritzaren mendeko Gizarte Larrialdiko onuradunen zerrenda, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez erabaki du ONTZAT EMATEA espedientean aipatzen diren onuradunen Laguntzak 6.311,55 euroko inportez. Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1904/02 Baimenduaren kargura.

10.- eta 11.- Subentzioen banaketa: Gizarte Prebentzioa eta Kooperazioa. Subentzioen banaketa: Prebentzioa Komunitateko Intsertzioa.

2002ko jardueretarako subentzio-eskaerak behin azterturik eta ikusirik Saileko Teknikari Arduraduna, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Aipatzen diren Elkargoei hurrengo subentzioak ematea:

- Eremu lokaleko gizarte sustapen programako partidaren kargura. Zka. 044813135001

- Emakumea.

< Itsasoalde.....901,52 euro
< Lagun Artea.....1.202.02 euro
< Azkuene (lokalak,
azpiegitura.....).....1.502,53 euro

- Prebentzioa eta Gizarte intsertzioa.

< Ascodel.....	1202 euro
< Ekintza da salud.....	300 euro
< A. Zimentarri.....	420 euro
< Arrats.....	450 euro
< Fundación Izan. Norbera.....	1202 euro

- Esparru lokala.

< Txolarte.....	601 euro
< Acabe.....	240 euro
< Alcer.....	240 euro
< ACCU.....	240 euro
< Agipase.....	751 euro
< Lagael.....	450 euro
< Ortzadar.....	450 euro
< Donantes de sangre.....	1202 euro
< Esclerosis múltiple.....	240 euro
< Atzegi.....	390 euro

- **Jubilatuena Etxeei subentzioak partidaren kargura. Zka. 044814561003**

- 3. adina.

< Preinca	811 euro
-----------------	----------

- **Garapenari kooperazio programa partidaren kargura. Zka. 044813135002**

< Mugen Gaietik. “ Educación para la salud de las mujeres en los municipios de Zacatecoluca y Tecoluca”. proiektua. San Vicente (El Salvador).....1803 euro.

< A.D.E.C. “ Acondicionamiento de 76 casas de familias en extrema pobreza afectadas por el huracán George” proiektua. Republica Dominicana.....1803 euro.

< Taupadak. “ Producción de biogás como alternativa energética” proiektua. Amazonía Boliviana.....1803 euro.

< Manos Unidas. “ Contrucción de Formación Ocupacional Perú proiektua 601 euro.

< Nazioarteko elkartasuna “ Ayuda de emergencia salud en la Franja de Gaza”..... 601 euro.

< Rumanalde “ Familias de acogida temporales con menores rumanos”..... 601 euro.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1905/02, A-1906/02 eta A-1907/02 Baimenduen kargura.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekurtsokin.

GAZTERIA ETA KIROLAK.

12.- Gabonak 2002 Haurren jaialdia ospatzeko gazte-taldee subentzioak.

Gazteria eta Kirolen Udal Batzorde Informatiboak 2002ko azaroaren 28an egindako diktameneko proposamenez, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Ondoren aipatzen diren gazte taldeei hurrengo subentzioak ematea Gabonak 2002 Haurren Jaialdia antolatzeko:

EKITZA	961,62 euro
BOVEDA	961,62 euro
EDUCADORES DE CALLE	1.382,33 euro
IÑALKIÑE (Abaraska)	1.382,33 euro
TXIMISTA	1.382,33 euro

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1332/02 Baimenduaren kargura.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekurtsokak seinalatuz.

13.- Gazte taldee subentzioak: gazteria eta kanpamentuen urteko jarduerak.

Gazteria eta Kirolen Udal Batzorde Informatibok 2002ko abenduaren 16an emandako diktameneko proposamenez, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Ondoren aipatzen diren gazte-taldeei hurrengo subentzioak ematea:

A) Gazteriaren urteko jarduerak:

TXIMISTA.....	236,20 euro	
A PABELA PRODUCTIONS..		
.....	1.233,72 euro	
BOVEDA GAZTE ELKARTEA		
.....	3.987,97 euro	
EKAITZA GAZTE TALDEA		
.....	2.960,61 euro	
INTERRUPTUS ANTZERKI		
TALDEA.....	850,24 euro	
PASA YA MALABAR TALDEA	607,91 euro

GUZTIRA	9.876,65 euro	

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1330/02 Baimenduaren kargura.

B) Kanpamentuentzat:

BOVEDA GAZTE ELKARTEA.....	
.....	4.607,24 euro
EKAITZA GAZTE TALDEA	
.....	2.911,65 euro
GAZTE TALDEA.....	
.....	635,94 euro

GUZTIRA	8.154,83 euro.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1331/02 Baimenduaren kargura.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legezkiekeen errekurtsioekin.

14.- A Pabela Productions-i subentzioak.

Gazteria eta Kirolen Udal Batzorde Informatiboak 2002ko irailaren 19an emandako diktameneko proposamenez, eta ikusirik Saileko Teknikariak 2002ko abenduaren 10ean emandako txostena, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- A PABELA PRODUCTIONS gazte taldeari 2.404 euroko subentzia ematea Video Club 2002 proiekturako.

Subentzia bi epetan abonatuko zaio:

- %60 behin akordioa sinatuta.
- %40 abenduaren amaieran.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1164/02 Baimenduaren kargura.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

15.- UDA 2002 Kanpaina Subentzioak: Koxtape piraguismoa eta Trintxerpe K.A.

Gazteria eta Kirolen Udal Batzorde Informatiboak 2002ko azaroaren 28an emandako diktameneko proposamenez, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- KOXTAPEKO Piraguismo Sekzioari 769,28 euroko subentzia ematea UDA 2002 Kanpainarako.

Hau guztia indarreango udal aurrekomntuko A-1802/02 Baimenduaren kargura.

BIGARREN.- TRINTXERPE KLUB ATLETIKOARI 961,6 euroko subentzia ematea UDA 2002 Kanpainarako.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1802/02 Baimenduaren kargura.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekurtsioekin.

EUSKARA

16.- 02-10-28ko Gobernu Batzordearen akordioaren aurka Fco. Javier González Prada jaunak tartekaturiko Erreposizio Errekurtsoa.

Ikusirik FCO. JAVIER GONZÁLEZ PRADA jaunak 2002ko urriaren 28ko Gobernu Batzordearen akordioaren aurka aurkeztutako Erreposizio Errekurtsoa, zeinen bidez subentziaok ematen baitzitzaizkien euskara ikasten ari ziren pasaitarrei eta non eskatzen den 30,05 euroko igoera helegileak eskaturiko laguntza, “autoikaskuntza” zerbitzu osagarriara joateagatik, non bi hilabetez egon baitzen matrikulatua.

Ikusirik Jaione Urruzola Euskara Teknikari andreak 2002ko azaroaren 26an luzatutako txostena, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKIDU

LEHENENGO.- FCO. JAVIER GONZÁLEZ PRADA jaunak tartekaturiko Erreposizio Errekurtsoa ontzat ematea 2002ko urriaren 28ko aurreko ebazpena modifikatuz, hau da, helegileari 30,5 euroko beste subentzio bat onartuz.

Hau guztia euskararen aldeko jardueren subentzioen partidaren kargura.

BIGARREN.- Akordio honen berri jakitera ematea legozkiokeen errekurtsoekin.

HEZKUNTZA ETA KULTURA.

17.- Kultur programak 2002 urteko subentzioak.

Kultura eta Hezkuntzako Udal Batzorde Informatiboak 2002ko abenduaren 19an luzatutako diktameneko proposamenez, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez,

ERABAKIDU

LEHENENGO.- Hurrengo kultur elkarteei 2002ko kultur programei subentzioak ematea 05.481.451.10.01 partidaren kargura:

ALKARTASUNA DANTZA TALDEA
.....2.072,50 euro
C.A.S. AZKUENE 342,27 euro
FATO CULTURAL DANIEL
CASTELAO. 790,94 euro
GRUPO EXPRESION DE

TRINTXERPE.....563,00 euro
GURE KALPARRA BIZILAGUN
ELKARTEA.....1.400,00 euro
KEXALDI.....450,77 euro
TRINTXER KULTURALA.....2.737,74 euro
BASARI KULTUR, JOLAS
ETA KIROL ELKARTEA.....211,72 euro

GUZTIRA 8.568,94 euro

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1915/02 Baimenduaren kargura.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

ONDAREA

18.- Ondare-erantzukizunaz hainbat erreklamazioa.

A) Beatriz Mendizabal Sistiaga andreak egin erreklamazioa.

Ikusirik BEATRIZ MENDIZABAL SISTIAGA andreak egindako erreklamazioa San Joan kaleko ur zikinak, eraikinen euri-urak eta azalerako drenajearen euri-urak biltzen dituen hustubidearen hoderia orokorraren butxaketaren ondorioari buruz, zeinak marismara hustutzen baitu eta “Kresala” ileapaindegiaren lokala afektatu baitzuen udalerrri honetako San Joan kaleko 43an.

Ikusirik Zerbitzuen eta Udal Aparejadorearen txostenak.

Frogaturik udal saneamenduari egindako kalteak.

Kreditaturik eragindako kalteen zenbatekoa, hau da, 186,99 euro, Linternaría Larrea-k bidalitako fakturaren bidez, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- BEATRIZ MENDIZABAL SISTIAGA andreari 186,99 eruro abonatzea.

**ETA
EZ**



BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

B) Gregorio Etxeberria Esteberena jaunak egin erreklamazioa.

Ikusirik GREGORIO ETXEBERRIA ESTEBERENA jaunak egin erreklamazioa 2002ko uztailaren 25ean herriko jaietan suziri bat lehertu eta bere balkoiko toldoan eragindako kalteak direla eta.

Kontuan izanik gertatuen ziurtasuna.

Ikusirik halaber lona txarrarekin egoera txarrean zegoen toldoa desmuntatu eta atzera lona berriarekin berritua jartzea 288,48 euro kostatu dela.

Kontuan izanik bere balio benala ez litzatekeela inoiz ere 175 eurotik goikoa izango, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- GREGORIO ETXEBERRIA ESTEBERENA jaunari 175 euro abonatzea Pasaia udalerrri honetako jaietan bere jabetzako toldoan eragindako kalteen ordainetan.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin batera.

C) Pedro Azpeitia Gartzia jaunak egin erreklamazioa.

Ikusirik PEDRO AZPEITIA GARTZIA jaunak egin erreklamazioa SS-0928-AZ matrikula duen ibilgailuan eragindako kalteak direla eta Eskalantegi kalean 2002ko abenduaren 3an udal-enplegiatuak zaborra biltzen ari zirenean edukiontzi batekin eraginda.

Ikusirik Zerbitzuak, Sareak eta Mantenimenduaren Sailak luzatutako txostena erreklamazioaren ziurtasuna aitortuz.

Kontuan izanik kreditatua dagoela kalteen zenbatekoa, hau da, 128,50 eurokoa, Ibai-Ondo S.L. Karrozeriak aurkeztutako aurrekontuaren bidez, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- PEDRO AZPEITIA GARTZIA jaunari 128,50 euro abonatzea hondakin solido urbanoak biltzen dituen zerbitzuak eragindako kalteen ordainetan.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legezkioken errekurtsokin.

D) Mari Mar Rosales Lopez andreak egin erreklamazioa.

Ikusirik MARI MAR ROSALES LOPEZ andreak tartekaturiko Errekurtsoa Gobernu Batzordeak 2002ko urriaren 28an hartutako erabakiaren aurka, zeinen bidez gaitzesten baitzuen helegileak ondare-erantzukizunari buruz egindako erreklamazioa Azkuene kalean galtzadan erori egin zela eta non argudiatzen zuen galtzada egoera txarrean aurkitzen zela eta, konkretuki, galtzadaren erdian aurkitzen den kutxeta inguratzen duen zona eta Udalak obligazioa duela kaleak oinezkoentzat eta autoentzat irekita eduki behar dituela.

Kontuan izanik Errekurtsoak ez duela errekurritu zen ebazpenean aipatzen ez den kuestio berririk agertzen eta lehengo ebazpena mantendu egin behar dela zeren eta ez baita frogatu galtzadaren edota helegilea ustez erori zen lekuaren egoera txarra, baizik eta guztiz alderantziz, dauden argazkien arabera argi ikus daitekeela galtzadaren egoera egokia.

Kontua izanik halaber nolnahi ere galtzadaren egoera ibilgailuentzat nahikoa eta gehiago ere bazela, horretarako diseinatu baitzen.

Kontuan izanik galtzadaren bi aldeetan badaudela espaloiak eta oinezkoentzat pasabidea helegileak erori zela dioen lekutik oso metro gutxitara, hau da, galtzadatik igaro gabe kalean gurutzatzeko oinezkoak pasabidea.

Kontuan izanik galtzada ez dela egokia ezta baimendua ere pertsonak zirkulatzeko, eta nolnahi ere bere ezaugarriak egokiak direla oinezkoen pasabiderako.

Kontuan izanik, beraz, helegilearen ibilera izan dela istripuaren kausa bakarra eta ez dagoela inolako lotune kausalik zerbitzuaren funtzionamenduaren eta kaltearen artean, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- MARI MAR ROSALES LOPEZ andreak tartekatutako Erreposizio Errekurtsoa gaitzestea.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsoeekin.

E) Javier González Moreno jaunaren erreklamazioa.

Ikusirik JAVIER GONZÁLEZ MORENO jaunak tartekaturiko Errekurtsoa Gobernu Batzordeak 2002ko urriaren 28an hartutako ebazpenaren aurka non erabaki baitzen helegilearen eskaera onartzea eta 60 euro abonatzea, bere jabetzako ibilgailuaren gurpilean jasandako kalteen salmenta balore bezala, eta non adierazi duen Udalak egindako balorazioarekiko adostasuna, balorazio berria egitea eskatuz baina frogatu gabe eta eskatu gabe froga-diligentzia berririk bere balioa ezartzeko.

Helegina izan den ebazpenak egindako balorazioa zuzena kontsideraturik, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- JAVIER GONZALEZ MORENO jaunak formulatu Erreposizio Errekurtsoa gaitzestu eta helegina izan den ebazpena erabat berronestea.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsoeekin.

F) Pablo Iturgaitz Hernaiz jaunaren erreklamazioa.

Ikusirik PABLO ITURGAITZ HERNAIZ jaunak egindako erreklamazioa BB-0390-S ibilgailuaren gasoil depositoa puskatzeagatik, 2002ko abuztuaren 4ean Pasai Antxoko Azokaren atzean dagoen batxe batean atzeko gurpilak sartzeagatik.

Kontuan izanik frogatu direla gertatuak Gobernu Batzordean bertan aurkitzen den Xabier Portugal Arteaga zinegotzi jaunak egun hartan bertan jakin zuelako.

Kontuan izanik puskatua izan den gasoil depositoarene balioa ez dela frogatu ezta bere antzinatasuna ere, zeren eta matrikularen arabera bere antzinatasuna kontuan izanik, erreklamatu duen kantitatearen minorizazio bat egitea bidezkoa baita, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

**ETA
EZ**



LEHENENGO.- PABLO ITURGAITZ HERNAIZ jaunari 200,00 euro ordaintzea bere jabetzako SS-0390-S matrikula duen ibilgailuaren gasoil depositoareen salmenta balioaren ordainetan, Pasai Antxon Azokaren atzetik igarotzean puskatu egin zitzaiolako depositoa, Udala obratan ari delako dauden batxeak direla eta.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legezkiokkeen errekurtsoekin.

G) Cristina Benito Flores andreak egin erreklamazioa.

Ikusirik CRISTINA BENITO FLORES andreak egin erreklamazioa bere semea UNAI PAMPLIEGA 2002ko azaroaren 1ean Axular plazan jarrita dauden haurren jolasen arteko zubitik erori zelako.

Kontuan izanik haurrak ez zituela ezta 2 urte ere istripua izan zuenean, haurra bera bakarrik ezin zela ibili, baizik eta beste batek lagunduta egon behar baitzuen, nolana ere bere zaintzaileak pentsatu behar baitzuen adin horrekin ezin zezakeela haurra bakarrik utzi.

Kontua izanik Udalak ez daukala haurra zaintzeko ardura baizik eta ardura hau gertatuen lekuan zegoen gurasoak hartu behar zuela zuzenean, zeinak utzi baitzuen hain adin laburreko haurra bakarrik jolasten.

Kontuan izanik haur handiagoentzat jolastokiak ez duela inolako arriskurik ezta txikiagoentzat ere zainduta baldin badaude.

Kontuan izanik, beraz, ez dagoela lotune kausalik zerbitzu publikoaren funtzionamenduaren eta kaltearen artean baizik eta lotune kausala erreklamatzaillearen aktuzio arduragabea izan dela, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- CRISTINA BENITO FLORES andreak egin erreklamazioa gaitzestea.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legezkiokkeen errekurtsoekin.

HIRIGINTZA

19.- Ekimen Urbanizatzaileentzat Laguntzak eskatzea.

**ETA
EZ**



Ikusirik GREGORIO BRUNA MUÑOZ jaunak San Joan kaleko 29-31ko jabekideen izenean egindako eskaera, hau da, aipatu eraikineko teilatuko harburuak konpontzeko obrei dagozkien gastuen %50 ordaintzeko subentzioa.

Ikusirik Udal Teknikari Aholkulariaren txostena laguntza ematearen aurkakoa dela.

Kontuan izanik Udalak aipatu subentzioa ematen duela eraikinak termiten aktuazioagatik hondatuta dauden eraikinentzat ematen duela eta hauek eragindako kalteen konponketarako.

Ikusirik 2000ko otsailean hartutako erabakia ekimen urbanizataileentzat diren subentzioak banatzeko, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- GREGORIO BRUNA MUÑOZ jaunak San Joan kaleko 29-31ko jabekideen izenean eskaturiko subentzioa ukatzea, zeren eta ez baititu betetzen aipatu proiektuen %50 kobratzeko baldintzak, termitek eragindako kalteak ez direlako.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legezkiokkeen errekurtsioekin.

20.- Nafarroa etorbidearen 5ean lehen erabilpenerako lizentzia.

Gertaturik PROMOCIONES SUQUIA S.L.-k 2001eko martxoaren 22an aurkeztu zuen lehen erabilpenerako lizentziaren eskaera A.N. 04/NAF 5, 6 eta 7 Exekuzio Unitatean.

Ikusirik 2001eko ekainaren 27an eta 2002ko abenduaren 18an Udal Arkitektoak luzatu txostenak.

Kontuan izanik eskatzaileak ia akats guztiak zuzendu dutuela, salbu gasa banatzeko hodiari dagokiona zeina fatxadan zehar jarri baitute eta honela 28. baldintza bete gabe utzi du “gas instalazioa ezingo da fatxadan bistan ezarri” baitio.

Kontuan izanik oker hau zuzentzeko zailtasun teknikoa eta juridikoa eta Udalak ez dituela berehala martxan jarri legetasun urbanistikoa berrezartzeko mekanismoak, horrela gasaren kondukzioa fatxadatik gitea konsentituz.

**ETA
EZ**



Kontuan izanik halaber soluzio hori onartzen dela lehendik horrela dauden eraikinetan eta ondorio estetikoak onargarria dela, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Pasai Antxoko Nafarroa etorbideko 5, 6 eta 7ko eraikinaren lehen erabilpenaren lizentzia ematea.

BIGARREN.- Behar bezala jakinaraziko zaizkion udal eskubideak likidatzea eta bereziki, eta izaera osagarritz, burutu diren eraikin-obrenak, zeinen azken aurrekontua ustez baita MILIOI BAT ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAZAZPI MILA EHUN ETA HIRUROGEITA HAMAIKA EURO (1.797.171 euro), Pasaiako Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren Ordenantza Fiskal Arautzaileko 7. artikulua araberara.

HIRUGARREN.- Ebazpen honen berri interesatuari ematea legezkiokkeen errekurtsuak jakinaraziz.

21.- Nafarroa etorbideko 10ean 1. erabilpenaren lizentzia.

Gertaturik PROMOCIONES SUQUÍA, S.L.-k 2001eko martxoaren 22an aurkeztu zuela A.N. 03/NAF 10-11-12 Exekuzio Unitatearen lehen erabilpenaren lizentzia eskaera.

Ikusirik 2001eko ekainaren 27an eta 2002ko abenduaren 18an Udal Arkitektoak luzatu txostenak.

Kontuan izanik eskatzaileak ia akats guztiak zuzendu dutuela, salbu gasa banatzeko hodiari dagokiona zeina fatxadatik egin baitute eta honela 28. baldintza bete gabe utzi baitu “gas instalazioa ezingo da fatxadan bistan ezarri” baitio.

Kontuan izanik oker hau zuzentzeko zailtasun teknikoa eta juridikoa eta Udalak ez dituela berehala martxan jarri legetasun urbanistikoa berrezartzeko mekanismoak, horrela gasaren kondukzioa fatxadatik gitea konsentituz.

Kontuan izanik halaber soluzio hori onartzen dela lehendik horrela dauden eraikinetan eta ondorio estetikoak onargarria dela, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Pasai Antxoko Nafarroa etorbideko 10, 11 eta 12ko eraikinaren lehen erabilpenaren lizentzia ematea.

BIGARREN.- Behar bezala jakinaraziko zaizkion udal eskubideak likidatzea eta bereziki, eta izaera osagarritz, burutu diren eraikin-obrenak, zeinen azken aurrekontua ustez da **BI MILIOI HOGEITA HAMALAU MILA EHUN ETA HOGEITA BOST EURO ETA HOGEITA HAMAHIRU ZENTIMO** (2.034.125,33 euro), Pasaiako Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren Ordenantza Fiskal Arautzaileko 7. artikulua arabera.

HIRUGARREN.- Ebazpen honen berri interesatuari ematea legezkioken errekurtsoak jakinaraziz.

- Gaizerrendaz at eta bertako zinegotzien aho batez berronetsirik bertan sartzea, hurrengo akordioak onartu dira:

22.- “Ulia etorbidea eta Azkuene kalearen arteko konexio-bialaren proiektua” obraren 16. (eta azken) ziurtagiria.

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez eta Udal Aparejadorean txostena aurrez emanik, erabaki du hurrengo ziurtagiria onartzea:

Zka. 16 (azkena)

Obra: “Ulia etorbidea eta Azkuene kalearen arteko konexio-bialaren proiektua”.

Obra-zuzendaria: ERAKI,S.L.

Enpresa kontratista: CONSTRUCCIONES DUMBOA, S.A.

Zenbatekoa: **HAMAIIKA MILA ETA LAUROGEI EURO ETA HOGEITA LAU ZENTIMO** (11.080,24 euro).

Karguaren Disposamendua: D-1497/2001.

23.- “Pasai san Pedron – Kalparra eraikinaren instalazio elektrikoa eguneratzea” obraren 1. ziurtagiria.

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez eta Udal Aparejadoreak txostena aurrez emanik, hurrengo ziurtagiria onartzea erabaki du:

Zka. 1.

Obra: “Pasai San Pedron – Kalparra eraikinaren instalazio elektrikoa eguneratzea”.

Enpresa kontratista: MONTAJES ELECTRICOS SALBIO (José Manuel Mayo).

Zenbatekoa: SEI MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA SEI EURO ETA HAMASEI ZENTIMO (6.526,16 euro).

Karguaren disposamendua: D-1214/2002.

24.- “Pasai san Pedron – Kalparra eraikinaren instalazio elektrikoa eguneratzea” obraren 1. ziurtagiria.

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez eta Udal Aparejadoreak txostena aurrez emanik, hurrengo ziurtagiria onartzea erabaki du:

Zka. 2 azkena (adizionala).

Obra: “Pasai San Pedron – Kalparra eraikinaren instalazio elektrikoa eguneratzea”.

Enpresa kontratista: MONTAJES ELECTRICOS SALBIO (José Manuel Mayo).

Zenbatekoa: ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA HEMEZORTZI EURO ETA BERROGEI ZENTIMO (858,40 euro).

Karguaren disposamendua: D-920/2002.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 14,30etan, batzarraldia amaitutzat eman da, honen edukia akta honetan jasoz eta Alkate jaunak eta nik, Idazkari bezala ziurtatuz sinatu dugularik.